

ba-ekian nundik nora ebiltzan; euren idazlanetatik agiri danez, euskera jatorraren jaube ziran; euskera gozo, jaso, bizi ederrez ziarduen; itz batez esateko, euskaldun euskaldunez.

Arein lorratzai jarraituz, izan bedi gurea be, itzez eta joskeraz geure-geurea, soiñekoz dizditsu.

AITA ONAINDIA

### ABELETXE

Ziarsolo'tar Manu aundia,  
Euskalerriko lorea,  
gizontasunez, ondo, jantzia  
euzko jatorri berea;  
buruz argia egin zinduzan  
egizko Jainko semea,  
biotzez barriz, beti, zenduan  
pozezko irriparrea.

Doai ederrak artu zenduzen,  
izatez, zure barnean;  
Euskalerrria, oso osorik,  
zeunkan zure biotzean;  
mendi eder ta zelai garbiak  
itz egiten eutzunean,  
zure bizia orbiztuten zan  
euzko gizandi artean.

Zure gogoa esnatu jatzun  
ikusirik aberria,  
erri eder bat doai ederrez  
ta izkuntza berezia;  
nork ez dau maite olako enda  
almendun zoragarria,  
gogo bikaiñez joritu zendun  
euskaldunen elertia.

PAULIN

Deia Egunkariak 1992'ko Bagillaren 16'an

### Atzo asi zan, Eskolapioen ikastetxean, Euskerazaleak eratutako Euskal Astea

BILBAO. Atzo arratsaldean asi zan Eskolapioen ikastetxean Euskerazaleak Alkartea'k eratu dauan euskal-astea.

Zubiri'tar Iñaki Alkartearen Lendakariak egin eban Astearen aurkezpena eta orrelan 25'n urtearen ospakizunari asierea emon eutson.

Jarraian berbaldia asi zan. Asiera baten berbaldi au Etxenagusia'tar Karmelo Begoña'ko parrokoak egiteko izan zan, baiña bideko iztripu batek ekarri eutson oneri ezintasuna eta beronen orde z Aita Santi Onaindia'k egin eban berbaldia.

Gaia "Ziarsolo'tar Manu, Abeletxe " izan zan.

"Abeletxe" idazle jatorrak beti izan eban artu-emona Euskerazaleak Alkartegaz eta bere azkenengo egunetan batez artu-emon estuagoa.

"Abeletxe"ren idaz-lanen artean berak aldizkarietan idatzia gogoratu eban Aita Santik, batez be Gazi-gazak here liburua.

Liburu onetan barregaiak asko eta benetan barregariak agertzen dira. Ba-eukan here gatza orretarako eta antzerkietarako gure "Abeletxe" entzutetsuak.

Bide batez Aita Santi'k beste arazo asko aztertu ebazan "Abeletxe" ren inguruan.

Berbaldiaren ostean Paulin bertsolari-olerkariak abestu ebazan aste oneri buruz here bertsoak eta jarraian alkar-izketa labur bat egiñaz amaitu eban ekiñaldia.

Gaurko berbaldia Berrojalbiz'tar Julita'k egingo dau. Bere gaia, "Euskerea Bilbao'n" izango da.



Su Onaindia